

# Eskola-Baratzeak eta horien erabilpen didaktikoa - ONLINE IKASTAROA



**17.Ira - 26.Api**

**Kod. @20-18**

**Edizioa**

2018

**Jaduerara mota**

Online ikastaroa

**Data**

17.Ira - 26.Api

**Hizkuntzak**

Euskara

**Balio akademikoa**

60 ordu

**Web**

<http://www.euskalfondoa.org/eu/eathink/>

**ZUZENDARITZA**

**Iker Huegun Ibarbia**, Euskal Fondoa, EAThink proiektua

**Amaia Elorza Pinedo**, Euskal Fondoa, EAThink proiektua



## **Antolakuntza Batzordea**

Fundación **BBVA**



**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
Diputación Foral de Gipuzkoa



**DONOSTIA**  
**SAN SEBASTIÁN**

## Azalpena

Ikastaro honek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Baliozkotzea izango du (1868170017 Kodea) unibertsitateaz kanpoko irakasleentzat.

Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Sailak irakasleen etengabeko prestakuntza gisa homologatzen du.

- 60 ordu (hilabetero 7-8 orduko dedikazioa)

- Hasiera: 2018/09/17 Bukaera: 2019/04/26

- Tarifa bakarra: 120 euro

- Hizkuntza ofiziala: euskara

### Irakaskuntzaren metodologia:

**1/ Metodologia:** Ikastaro praktikoa eta talde-lanekoa izango da batik bat. EAThink Eskola-Baratzea Liburuxkan eta EAThink Eskola-Baratzeen Agendan oinarrituta, parte-hartzaile bakoitzak bere eskolan, esperientzian eta beharretan oinarritutako ariketa praktikoa egingo ditu. Irakaslea ikasle guztien ariketen inguruko ekarpenak egiten joango da bakoitzak bere proiektu propioa hobetzen joateko. Ikasleen zalantzak eta beharrak ere erantzungo dira. Hau da, .

**2/ Ikastaroaren antolaketa:** Alderdi teorikoa izango du oinarri gisa baina batez ere praktikoa izango da ikastaroa, eta ikasle bakoitzaren behar eta esperientzien arabera jarraipena egingo da. Hilero irakasleak gai bat edo batzuk txertatuko ditu eta horren gainean ikasleek ariketa batzuk egin beharko dituzte (haien eskola-baratzean oinarrituta). Ariketen zuzenketa orokorrak egingo dira eta ikasleen aholkularitza eta jarraipena egingo da.

Ikasturte hasieran teoriak indar handiagoa hartuko du, gerora aholkularitzak eta jarraipenak indar handiagoa hartuz, ikasleen beharrak eta zalantzak ugarituko direlakoan.

- **Teoria.** Hainbat materialetan oinarrituko da: EHUko Udako ikastaroko grabaketa, EAThink Eskola-Baratzea liburuxka, EAThink Eskola-Baratze Agenda...
- **Praktika-Ariketak.** Ariketa praktikoa eta horien zuzenketa: non ipini baratzea, nola antolatu, nola erabili kaiera...
- **Praktika-Aholkularitza eta jarraipena:** Ikastetxeetan sortzen diren galdera eta arazoaren kontsulta egiteko hilabeteroko tartea.

## Helburuak

Eskola-Baratzeak garatu nahi dituzten irakasleekin ikastaro praktikoa egin, ikasturtean zehar egindako aholkularitza eta jarraipenean oinarritua.

Eskola-Baratze bat gauzatzeko gidalerro eta gako nagusiak zehaztu.

Ikasturteari egokitutako Eskola-Baratze baten plangintza gauzatu.

Euskal ikastetxeetan Eskola-Baratzeak garatu nahi dituzten irakasleei aholkularitza eman eta haien proiektuen jarraipena egin.

### **Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak**

## **BIZI BARATZEA**



## Programa

2018-09-17 / 2018-09-28

### 1. UNITATEA

- **Ikasleen aurkezpena:** zergatik gaude ikastaro honetan eta zertarako?
- **Baratzea eskolan, zertarako?** Zer gai landu daitezke eskola-baratzearekin?
- **Agroekologia/permakultura eskolan?** Bideragarria da? Nola egin?
- Ariketa: **Ikasleen helburu didaktikoen zehaztapena.**

EMALEAK : **Jakoba Errekondo**

---

2018-10-01 / 2018-10-31

### 2. UNITATEA

- Eskola-baratzea antolatzen: **baratzearen kokapena, itxura, lurraren ezagutza eta prestaketa, oinarrizko tresneria.**
- Ariketa: Eskola-baratzearen antolaketa.
- Ariketa: Lurraren ikerketa eta beharren zehaztapena.

EMALEAK : **Jakoba Errekondo**

---

2018-11-01 / 2018-11-30

### 3. UNITATEA

- **Zer landatu gure eskola-baratzean?** Barazki errazetan errazenak, nor norekin, txandakatzea...
- Ariketa: Ikasturteko landaketa planifikatu (kopuruak, aniztasuna, txandakatzea...)
- Ariketa: Fruitarbolak planifikatu.

EMALEAK : **Jakoba Errekondo**

---

2018-12-03 / 2018-12-21

### 4. UNITATEA

- **Polinizatzaileak eta landare laguntzaileak.**

- Ariketa: Landare laguntzaileak planifikatu.
- Ariketa: Intsektarioak planifikatu.

EMALEAK : **Jakoba Errekondo**

---

**2019-01-07 / 2019-01-31**

### 5. UNITATEA

- **Nola egin luarra/konposta/ongarri organikoa gure eskolan?** Eskolan luarra egiteko aukerak.
- Ariketa: Eskolan luarra egiteko planifikazioa, non, beharrezko elementuak...

EMALEAK : **Jakoba Errekondo**

---

**2019-02-01 / 2019-02-28**

### 6. UNITATEA

- **Eta neguan zer? Hazitegiak eraikitzeke sasoia:** nola egin, nola erabili, non kokatu, zer erein...
- Ariketa: Eskolako hazitegiak diseinatu, esperimentuak egin...

EMALEAK : **Jakoba Errekondo**

---

**2019-03-01 / 2019-03-29**

### 7. UNITATEA

- **Zer egin gaitza eta izurriteen aurrean? Tratamendu naturalak** nola egin.
- Ariketa: Eskola-baratzeko gaitz nagusiak identifikatu, beharrezko senda belarrak identifikatu eta horien erabilpena planifikatu.

EMALEAK : **Jakoba Errekondo**

---

**2019-04-01 / 2019-04-30**

### 8. UNITATEA



- **Zer egin uztarekin?**
- Ariketa: bakoitzaren uztaren arabera ekintzak planifikatu.
- **Gure eskola-baratzearen entziklopedia.**
- Ariketa: Ikasturtean zehar landutakoa dokumentu bakarrean jaso, zuzendu, doitu...

EMALEAK : **Jakoba Errekondo**

---

## Zuzendariak



### **Iker Huegun Ibarbia**

Euskal Fondoa, EAThink proiektua

---

EAThink proiektuaren arduraduna. Euskal Fondoa.



### **Amaia Elorza Pinedo**

Euskal Fondoa, EAThink proiektua

---

EAThink proiektuaren arduraduna. Euskal Fondoa.



## **Irakasleak**



### **Jakoba Errekondo**

---

Paisajista eta agronomoa. Bizi Baratzea proiektuko kidea eta baratzegintzari buruzko hainbat libururen egilea.



## Matrikula prezioak

<b>MATRIKULA</b>	<b>2019-04-01 ARTE</b>
<a href="#">Tarifa bakarra</a>	120,00 EUR